

**ESKABIDEA: SOLDATARIK GABEKO BAIMENA, ESZEDENTZIA, LANALDI MURRIZTUA, KONTRATUARI UKO EGITEA
ETA BESTE**

Izen-abizenak:			
Lanpostua:		Eskola:	

Markatu x batez eta bete dagokizuna (eskaera 10 egun lehenago aurkeztu behar da gutxienez)

	Kontratuari uko egitea	Adierazi ukoaren arrazoia:
	Norbere aferetarako lizentzia soldata gabea (gehienez ere 5 hilabete 2 urtean)	Arrazoia:
	Soldatarik gabeko baimena (3 eta 6 hilabete bitarte urtebetean, ordainsaria proportzio berean murriztuta)	Arrazoia:
	Neurri batean ordaindutako baimena (30 hilabete jarraian)	Arrazoia:
	Eszedentzia berezia seme-alabak zaintzeko	Semearen edo alabaren abizenak eta izena: Jaiotze-data:
	Eszedentzia ahaideak zaintzeko:	Izen-abizenak: Ahaidetasuna:
	Nahitaezko eszedentzia	Arrazoia:
	Borondatezko eszedentzia (markatu dagokizuna): Interes partikularragatik Zuzendaritza-kargu batean aritzeko Beste administrazio publiko batean lan egiteko	Arrazoia:
	Lanaldi murriztua 12 urtetik beherako seme-alabak edo arreta berezia behar duen adinekoa edo ezgaitasun bat duena zaintzeko	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua, funtzionarioaren ezkontide edo bikotekide egonkorren ezintasuna edo odol nahiz ezkontza bidezko lehen mailako ahaide batena direla kausa	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua, bigarren mailara arteko odol nahiz ezkontza bidezko ahaideen zuzeneko zaintzarako, baldin eta beren kasa baliatzeko gai ez badira adinagatik, istripu edo eritasun baten ondorioz edo legez aitortutako ezgaitasun bat dela kausa	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua genero-indarkeriaren biktima izateagatik	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua 55 urte edo gehiago izateagatik	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua, ez aldi baterako ezintasunik ez ezintasun iraunkorrik sor ez dezakeen gaixotasunen bat dela eta	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua, legezko zaintza dela medio langileak zuzenean bere kargu badu 12 eta 16 urte (biak barne) bitarteko adingabe bat	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:
	Lanaldi murriztua langilearen interes partikularrengatik	Murriztapen-ehunekoa edo -ordutegia:

Hasiera-data:	Hasiera-ordua:
Amaiera-data:	Amaiera-ordua:
Egunak, GUZTIRA:	
Erantsitako agiriak:	
Langilearen sinadura	Eskolako zuzendariaren oniritzia
Data:	

- **11/2009 Foru Dekretua**, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena, abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretuak aldatua.
- **39/2014 Foru Dekretua**, maiatzaren 14koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen.
- **251/1993 Legegintzako Foru Dekretua**, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua.
- **27/2011 Foru Dekretua**, lanaldiaren murrizketa arautzen duena.

Mota		Oharrak
	Norbere aferetarako lizentzia soldata gabeak (gehienez ere 5 hilabete 2 urte naturalean behin)	Zerbitzuaren beharren arabera emanen da, salbu eskatzailea ordeztzeko aukera badago lizentzia hastean. Lizentziaren iraupen metatua ezin da izan 3 hilabetetik gorakoa.
	Soldatarik gabeko baimenak (3-6 hilabete bitarte urtebetean)	Funtzionario, estatutupeko langile edo administrazio-kontratudunendako bakarrik, baldin eta lanpostu huts edo erreserbatu batean ari badira eta haien zerbitzu-harremanaren iraupena gutxienez urtebetekoa bada. Langile kontratudunei ere aplikatzen zaie, hitzarmen kolektiboak indarrean jarraitu bitartean. Soldataren murrizketa osoa izan daiteke, baimenaldian egitekoa, edo partziala, urte osoan zehar hainbanatuta.
	Neurri batean ordaindutako baimena (30 hilabete jarraian ordainsariaren % 84 jasota: 24 hilabetetan lanaldi osoa eginik, eta 6 hilabetean baimena hartuta)	Funtzionario, estatutupeko langile edo administrazio-kontratudunendako bakarrik. Langile kontratudunei ere aplikatzen zaie, hitzarmen kolektiboak indarrean jarraitu bitartean. Gizarte Segurantzaren kotizazioaren murrizketarekin.
	Eszedentzia berezia seme-alabak zaintzeko	Amek zein aitek eska dezakete. Iraupena: gehienez ere, 3 urte, haurra jaiotzen denetik edo, adopzio- edo harrera-kasuetan, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuta. Noiznahi eskatzen ahal da lanera itzultzeko, baina lehenago itzultzeko eskatuz gero subjektu eragile bera dela kausa beste eszedentzia bat eman ahalako zaio bakarrik lanera noiz itzuli eta 6 hilabetera. Tokia gorde egiten da.
	Eszedentzia senideak zaintzeko	Eskatzen da bigarren mailara arteko odol edo ezkontza bidezko ahaideak zaintzeko, baldin eta adinagatik, istripu edo eritasun baten ondorioz edo legez aitortutako ezgaitasun bat dela kausa beren kasa baliatzeko gai ez badira eta lan ordaindurik egiten ez badute. Lan-kontratudunak: 2 urte gehienez Funtzionarioak: 3 urte gehienez Subjektu eragileak lan ordaindurik egiten ez duela egiaztatzeko dokumentazioa. Noiznahi eskatzen ahal da lanera itzultzeko. Tokia gorde egiten da.
	Nahitaezko eszedentzia	Erakunde autonomoko lanarekin bateraezinak diren karguetan aritzeko Nahitaezko eszedentzia eragin zuen arrazoia amaitu eta 30 eguneko epean itzuli behar da lanera Antzinatasuna, mailak eta graduak gordetzen dira, baina horiek ez dute eskubide ekonomikorik sortzen, eta karguan emandako denbora ez da zenbatzen lan egindako gisa
	Borondatezko eszedentzia Interes partikularragatik Beste administrazio publiko batean lan egiteko Zuzendaritza-kargu batean aritzeko	Lan-kontratudun finko edo funtzionarioa izan behar da, edo kontratu mugagabe ez-finkoa eduki. Langileak urte osoan egin behar du eskaera: urtebeterako, bi urterako edo hirurako. Ezin da lanera berriz itzultzeko eskatu, urtebete igaro arte. Interes partikularragatik: Lanpostua gordeko da lehen hiru urtean –lan-kontratudunen kasuan– eta 18 hilabetean –funtzionarioen kasuan–. Beste administrazio publiko batean lan egiteko: Ez da lanposturik gordeko. Maila eta kategoria bereko lanpostu batera lehentasunez itzultzeko eskubidea. Itzultzeko eskatu ondoren, hilabeteko epean itzuli behar da. Antzinatasuna, mailak eta graduak gordetzen dira, baina horiek ez dute eskubide ekonomikorik sortzen, eta karguan emandako denbora ez da zenbatzen lan egindako gisa.
	Lanaldi murriztua 12 urtetik beherako seme-alabak edo arreta berezia behar duten adinekoak zein ezgaitasuna dutenak zaintzeko	Ez daude zerbitzuaren beharren mende.
	Lanaldi murriztua funtzionarioaren ezkontide edo bikotekide egonkoraren ezintasuna edo odol nahiz ezkontza bidezko lehen mailako ahaide batena direla kausa	Lanaldia 1/3, 2/5, 1/2 ala 2/3 murriztu daiteke. Soldata proportzioan murriztuko da. Onartuko da lanaldi-murrizketa 1/8, 1/6 edo 1/4ekoa izatea, baldin eta ordezkapena ez bada nahitaezkoa.
	Lanaldi murriztua bigarren mailara arteko odol nahiz ezkontza bidezko ahaideen zuzeneko zaintzarako, baldin eta beren kasa baliatzeko gai ez badira adinagatik, istripu edo eritasun baten ondorioz edo legez aitortutako ezgaitasun bat dela kausa	Lanaldiaren murrizketak gutxienez hiru hilabete iraunen du, eta gehienez, hura eragin duen arrazoia amaitzen den arte. Dokumentazioa aurkeztu behar da lanaldi-murrizketa eragin duten arrazoiei buruz.
	Lanaldi murriztua genero-indarkeriaren biktima izateagatik	
	Lanaldi murriztua 55 urte edo gehiago izateagatik	Zerbitzuaren beharren mende daude. Lanaldia 1/3, 2/5, 1/2 ala 2/3 murriztu daiteke.
	Lanaldi murriztua ez aldi baterako ezintasunik ez ezintasun iraunkorrik sor ez dezakeen gaixotasunen bat dela eta	Soldata proportzioan murriztuko da. Onartuko da lanaldi-murrizketa 1/8, 1/6 edo 1/4ekoa izatea, baldin eta ordezkapena ez bada nahitaezkoa.
	Lanaldi murriztua, legezko zaintza dela medio langileak zuzenean bere kargu badu 12 eta 16 urte (biak barne) bitarteko adingabe bat	Lanaldiaren murrizketak gutxienez hiru hilabete iraunen du, eta gehienez, hura eragin duen arrazoia amaitzen den arte
	Lanaldi murriztua langilearen interes partikularrengatik	Dokumentazioa aurkeztu behar da lanaldi-murrizketa eragin duten arrazoiei buruz.

Oro har, opor-, lizentzia- eta baimen- eskaerak 10 egun natural lehenago aurkeztu behar dira.